


## DEBAGOIENeko LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

### MAIALEN IARZAREN IBILBIDEA



#### Lan merkatua



**M**aialen larza arrasatearrak Ibilgailuen Elektromekanika erdi-mailako zikloa bukatu eta goi-mailako Automozio zikloa ikasten hasi da, Aretxabaleta Lanbide Eskolan. Egun, tailer mekaniko baten lanean ari da, ikasketak eta lana uztartuta.

Oraindik ere badira maskulinizatutako sektore batzuk, eta horietako bat ibilgailuen arloa da. Nolatan ikasi duzu Ibilgailuen Elektromekanika?

Betidanik gustuko izan dut ibilgailuen mundua, eta lehenago ikasi ez banuen, lotsagatik izan da. Ikasgelako neska bakarra izan naiz urteetan, baina oso gustura egon naiz.

Zein izan da zure ibilbidea?

DBH amaituta, Batxilergoan hasi nintzen, baina, gustuko ez nuen ez, erdi-mailako beste ziklo bat ikasteari ekin nion. Aukeratutako ikasketekin ere ez nuen asmatu, eta, azkenik, benetan gustuko nuenari heldu nion. Hau da, ibilgailuen munduari.

Erdi-mailako zikloa amaituta, goi-mailakoarekin jarraitzea erabaki zenuen... Bai, ikasten jarraitzearen, baina, egun, jardunaldi osoz lanean ari naiz tailer mekaniko batean, eta ez da erraza izaten ari ikasketak eta lana bateratzea.

Lanbide Heziketari buruz zer esango zenuke?

Lanerako prestatzen zaituen ikasketak dira, gerora beharko dituzun gauzak erakusten dira. Teoria eta praktika tartekatzen dira. Teoria nahiko ezagutu behar da, oinarri bat ematen dizute, praktiketara joan aurretik.

Praktiketan, zer moduz?

Oñatiko tailer batean egin nituen praktikak, autoak konpontzen, piezak aldatzen... Praktikak bukatzean, pena hartu nuen. Asko ikasten da.

Lana nola aurkitu duzu?

Eskolako lan-poltsara hainbat lan eskaintza heldzen dira, eta bertatik aukeratu ninduten. Izugarriko suertea izan dut: gustuko ikasketak egin eta, gainera, lanean hasi!

# GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

## GOIAZ! 2017

Lanbide Heziketaren Azoka  
**Apirilaren 26an eta 27an**  
Kulturaten, Arrasaten



goiazdebagoiena



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurumeneko  
eta Lurralde Orekako Departamentua